



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



KIROLEKO DOPINAREN ARAUKETA

TU ABOGADO VE LO QUE TÚ NO VES

**CONSULTA CON TU
ABOGADO/A**



Reclamaciones,
Denuncias, Contratos,
Consultas legales, Divorcios,
Hipotecas, Despidos laborales,
Comunidades, Accidentes,
Jubilaciones, Herencias....

**Consulta
con tu abogado/a**



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

Kiol lehiaketen transnacionalizazioak edo globalizazioak eta lehiaketa batzuen eta kirolari askoren osparen mundu garrantziak –batzuetan izaera aberkoi edo nazionalistako interes politikoei lotuta, atleta edo kirolari bat ordezkatzan duen herri, nazio edo lurraldearekin identifikatzeagatik– merkaturako ekoizpen sistema eta publizitate ugari sortzen dituzte eta horrek milioika euro mugitzen ditu inguruan.

Mugimendu geldiezin horren eraginez –batzuetan ez du justifikazio etikorik, neurri ekonomiko handiak lortzen direlako baita ekonomia eta finantza egonkortasuna kolokan duten inguruetan ere–, zientzia eta diziplina berezituak eta aldi berean elkarri lotuta daudenean, hala nola kirol medikuntzak, soziologiak, bioetikak eta zuzenbideak, lanak eta ikerketak eskaintzen dizkiete kirolari, gehiegizko zabalkundea sustatzeko, jardueraren protagonista den gizakiaren gaitasunak eta trebetasunak sustatzeko, aurrerapen zientifikoak lortzeko ez kirolariek etekin handiagoak lortzeko bakarrik, baita kirolarien osasuna hobetzeko eta goi mailako kirolak eragin ditzakeen kalteak hobetzeko ere.

Ez dago zalantzarik goi mailako kirolaren sarrera ekonomikoek eta horren inguruko finantza eta merkataritza jarduerak kirolari batzuentzat eskakizun maila irrazionala eragiten dutela. Hori dela eta, kirolari batzuek –norbere burua gaintzea, lana eta ahalegina, ohorea, edertasuna eta aurkaria errespetatzea maximak ahaztuz– batzuetan legez kanpokoak diren baliabideak erabiltzen dituzte, kasu guztietan guztiz ez-legitimoak direnak.

Zuzenbideak eta kirolaren inguruan ikertu eta lan egiten duten gainerako diziplinek proiektuak garatzen dituzte gatazkak, alderdi gatazkatsuak, lehiaketa eta txapelketen oinarriak arautzeko esparrua ezartzeko eta arau-haustek eta zehapen-prozedurak arautzeko.

Gure autonomia-erkidegoa aitzindaria da dopinaren aurkako legea sortzen eta argitaratzen, eta horren bidez, administrazioari tresnak ematen zaizkio dopina zehatzeko –bai baimenduta ez dauden substantziak kontsumitzen dituztenak bai horiek hornitzen dituztenak–. Modu berean, Dopinaren aurkako Euskal Agentzia sortzea ezarri da.

Ea lortzen dugun legeen eta administrazioaren esparruetan egindako aurrerapen horren bidez kirolak berriro ere edertasuna eta distira lortzea, gure kirolariak heroi klasikoan mailara iritsi daitezela, haiek azkarago, gorago, indartsuago iritsi baitziren beti.

“Citius, altius, fortius”

La Transnacionalización o globalización de las competiciones deportivas, así como la trascendencia mundial del prestigio o fama de algunas competiciones y de multitud de deportistas-unidas, en ocasiones, a intereses políticos de carácter patriótico o nacionalista por identificación, desde tiempos inmemoriales, del atleta o deportista, con el pueblo, nación o territorio al que representan- generan un inabarcable sistema productivo de mercado y publicidad que mueve millones de euros a su alrededor.

Este fenómeno de progresión imparable- y en ocasiones carente de justificación ética por sus dimensiones económicas cuando se desenvuelve en entornos cuya estabilidad económica y financiera se tambalea-, genera irremediamente que ciencias y disciplinas diferenciadas y al mismo tiempo dotadas de conexión indiscutible, como la medicina deportiva, la psicología la bioética y el derecho dediquen parte de sus trabajos y estudios al deporte para promover su ya sobredimensionada difusión, potenciar las capacidades y habilidades del ser humano protagonista de la actividad, y conseguir avances científicos que no sólo ofrezcan mayores rendimientos a los deportistas, sino que puedan mejorar su salud o evitar los perjuicios y daños que el deporte de alta competición puede generar.

Es indudable, que el nivel de ingresos económicos del deporte de alta competición así como la actividad financiera y mercantil que lo rodea, generan un irracional nivel de exigencia para algunos deportistas que –olvidando las máximas teóricamente indiscutidas de superación personal, trabajo y esfuerzo, honor, belleza y respeto por el rival- se ven abocados erróneamente a la utilización de medios en ocasiones ilegales y en todos los casos absolutamente ilegítimos.

El derecho, de forma conjunta con las demás disciplinas que estudian y trabajan alrededor del deporte, desarrolla proyectos que establecen un marco normativo para la regulación de conflictos, aspectos controvertidos, bases de concursos y competiciones así como la regulación de infracciones y procedimientos sancionadores.

Nuestra comunidad autónoma es precursora en la creación y publicación de una Ley contra el Dopaje que dota a la administración vasca de instrumentos para sancionar el mismo- tanto a través de quienes consuman sustancias no permitidas como de aquellos que las suministren-. Del mismo modo se prevé la creación de una Agencia Vasca contra el dopaje.

Esperemos que tal avance de carácter legislativo y administrativo, consiga devolver al deporte la belleza y el esplendor que le están siendo arrebatados, para que nuestros deportistas sigan emulando a aquellos héroes clásicos, que siempre llegaron más rápido, más alto, más fuerte.

“Citius, altius, fortius”



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatu
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

Colaboradores / Laguntzaileak
César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987



Disjurex



Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, **¡ LO TENEMOS !**

Su mayor librería jurídica en internet



Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. **944 255 220** ó **902 540 992**.

LIBRERÍA PRESENCIAL. Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

LIBRERÍA VIRTUAL: www.disjurex.es. Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS: Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS: Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

www.disjurex.es

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Distribuidor exclusivo de:
Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

Librería Exposición y Venta

A 100m. del Palacio de Justicia Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia



Alameda Mazarredo, 15 Bajo
48001 - Bilbao - Vizcaya
Teléfono: 902 540 992 – 944 255 220
Fax: 902 540 993 – 944 245 811
E-mail: clientes@disjurex.es
Librería Virtual: www.disjurex.es

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

SÍGUENOS EN:



2013ko apirila

06

BERRIAK

08

INFORMAZIOA

*Espainiako abokatuzaren
barne barometroa*

*Kiroleko dopinaren arauketa lege
organikoaren proiektuaren argitan*

14

JARDUNALDIAK

*Carlos Ruíz de Gordejuela
jardunaldien XV. Zikloa*

22

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

24

LEGEGINTZA BERRITASUNAK

26

KULTUR ERANSKINA

06



10



14

RAFAEL CHIRBES 26

En la orilla



ANAGRAMA
Narrativas hispánicas

28



EMAKUMEZKO ABOKATUEN LANEKO ETA FAMILIAKO BIZITZA UZTARTZEA

EAEANren epai berritzailea emakumezko abokatuen amatasunaren ondoriozko atsedinari dagokionez (EAEANko Lan arloko Salaren 435/2013 epaia)

Susana Olea Cobo. Abokatua.

Abokatuen kolektiboarentzat oso interesgarria den albiste baten berri izan dugu. Orain arte, norberaren konturako emakumezko abokatuok (Gizarte Segurantzza eta/edo Mutualitatea) ez genuen amatasunaren ondoriozko inolako atsedunik hartzeko eskubiderik, ordainduta, LEren 48.4 artikuluan inoren konturako langileentzat ezarrita dagoen moduan, GSLOren 133 bis eta ter artikuluekin lotuta (16 atsedena aste ordainduta), baina, era berean, ez ziguten baimentzen bikotekideari gure atsedena eskubidea lagatzen eta prestazio ahari ordaintzen, betiere, bikotekide horrek altarako eta kotizazioarako eskatutako betekizun orokorrak betetzen bazituen.

Egunero egiten dudana borroka bultzatuta, Lan arloko epaitegietan, 1998. urtetik (nire espezialitatea lan arloa da), eta 2006. urtean lehen haurdunaldiarekin familia eta lan bizitza oso gaizki uztartu nituen, martxoaren 6ko 295/2009 ED indarrean jartzean, edozein gurasori datzekion eskubidea ongitzeko aukera ikusi nuen, hain zuzen ere, seme-alaba jaio ondoren haur hori zaintzeko eskubidea, aita zein ama izan, gure lanbidean gauzatu egin zena.

2011n, berriro ere haurdun geratu nintzenean, prozedura bat aztertzen hasi nintzen, eta 2012/01/16an Mario nire semea jaio ondoren abian jarri nuen, nire senarra demanda-egilea zela.

Batetik, aurkitu nuen Abokatutzaren Mutuak jaiotzaren ondorioz kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortzen zuela, baina eskubide horren izaera eta zenbatekoa ez zela 16 aste amatasun-atsedenaren modukoa edo antzekoa; eta, bestetik, GSINi amatasun-atsedena nire senarrari osorik lagatzea eskatu nion, **martxoaren 6ko 395/2009 EDren 3.4 dela bide**. GSINek modu sistematikoan ukatu zidan, eta justifikaziorik gabe ezezkoa eman zion langileak eskatutako eskubideari, kasu honetan nire senarrak eskatutakoari, Mutuaren erditzearen ondoriozko kalte-ordaina LEren 48.4

artikuluko amatasun-prestazioarekin PAREKATU baitzuen.

1.- Erakunde kudeatzailearen aldetik jarrera antijuridikoa gertatzen ari zen, eta **martxoaren 6ko 395/2009 EDren 3.4 artikulua** urratzen ari zen.

2.- Beste gremio batzuekin konparaziozko bidegabekeria egiten ari zen, hala nola arkitekto teknikoekin. Horiei aitortu egiten zitzaie bikotekideei amatasun-atseden ordaindua lagatzeko eskubidea.

Aurretiazko erreklamazioa eta ondoren demanda jarri ondoren, autoak **Bilboko Lan arloko 4. zenbakiko Epaitegira** iritsi ziren (259/12 autoak). Demanda baiesten zuten epaia eman zen 2012/11/15ean, eta horretan "aitortu egin zen egileak amatasunaren ondoriozko prestazioa jasotzeko eskubidea zuela (osorik) eta GSIN eta GSAN prestazio hori ordaintzera kondenatu ziren". Epaia horretan oso argi uzten da, bigarren zuzenbideko oinarrian:

1.- Abokatutzaren Mutuak aitortutako kalte-ordaina erditzearen ondoriozko kalte-ordaina baino ez da, eta prestazio bakarra ordaintzen da. Hala ere, EZIN DA PAREKATU GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMAK EMATEN DUEN AMATASUNAREN ONDORIOZKO BABESAREKIN, KASU HORRETAN AMATASUNAREN ONDORIOZKO ATSEDEN ALDIAN JASOTZEN DEN SOROSPENA BAITA, LE-REN 48.4 ARTIKULUAN ARAUTUA, HOTS, 16 ASTEKO ATSEDENA.

2.- MARTXOAREN 6KO 295/2009 EDREN 3.4 ARTIKULUKO LEHENENGO KASUAREN AURREAN GAUDE. HORREN ARABERA, ERDITZEAREN KASUAN, AMA NORBERE KONTURAKO LANGILEA DENEAN ETA LANBIDE-JARDUERA DELA BIDE KASUAN KASUKO ELKARGO PROFESIONALAK EZARRITAKO GIZARTE AURREIKUSPENEN MUTUALITATEAREN BARRUAN DAGOENEAN, ETA PRESTAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA EZ DUENEAN KASUAN KASUKO MUTUALITATEAN AMATASUNAREN ONDORIOZKO BABESA EZARRITA EZ DAGOELAKO,



BIKOTEKIDEAK, BETEKIZUNAK BETETZEN BADITU ETA DAGOKION ATSEDEN ALDIAZ GOZATZEN BADU, AMATASUNAREN ONDORIOZKO SOROSPENA JASO AHAL IZANGO DU.

Erakunde kudeatzaileak epai horren aurka erregutze-errekurtsoa aurkeztu zuen. **EAEANko Lan arloko Salak, 240/2013 erreka., 2013/03/05ean, errekurtsoa gaitzetsi eta epaia berretsi** zuen. Bigarren zuzenbideko oinarrian adierazpen oso interesgarriak egin zituen adingabea zaintzeko eskubideari buruz, erditu eta berehala izan ez arren.

Lan arloko 4. zenbakiko Epaitegiaren epai horrekin, EAEANko Lan arloko Salak berretsitakoarekin, hau lortu da:

1.- Emakume abokatuak bikotekideari laga ahal izatea **amatasunaren ondoriozko 16 atsedena asteak, osorik**, GSLOko 133 bis eta ter artikuluko alta eta kotizazio betekizunak biltzen badi-tu (gogoan izan behar da inoren konturako langile batek 10 aste soilik laga ditzakeela, lehenengo 6 asteak nahitaez amak hartu behar baititu).

2.- Gainera, **ordainduta** egotea, kasuan kasuko prestazioa ordaintzen baita.

Orain posible da lana eta familia uztartzea erditzea gertatzen denean. Izan ere, horrela lasai egon gaitzeko gure seme-alaba bikotekideak zaintzen duela, familia-unitaterako murrizketa ekonomikorik eragin gabe.

HIPOTEKA EXEKUZIOAK

Jose Pérez Grijelmo. BJABOk Hipoteka Aholkularitza eta Bitartekaritza Zerbitzuko koordinatzailea.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2013ko martxoaren 14ko epaiak berretsi egin du hipoteka-exekuzioen Espainiako legeriak, PZLren 695. artikulua eta hurrengoak, urratu egiten duela kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko Europako Erkidegoko araudia, exekutuari ez baitio alegatzen uzten abusuzko klausulak daudela.

Bartzelonako Merkataritza arloko 3. zenbakiko Epaitegiak Europar Batasuneko Justizia Auzitegian planteatutako epaitu aurreko arazoan planteatzen zen ea gure Prozedura Zibilarren Legean ezarritako ondasun hipotekatuen gaineko titulu judizialak exekutatzeke sistema, Espainiako antolamendu prozesalean ezarritako aurkaratze arrazoiei dagokienez dauden mugekin, ez bada kontsumitzailearen babesaren muga argia, formari eta edukiari dagokionez kontsumitzaileari oztupo argia jartzen baitzaio bere eskubideen babes eraginkorra bermatzeko ekintza edo baliabide judizialak egikartzeko.

Europako Batzordeak, 2012ko otsailan egin eta prozeduran gehitutako txostenean, ohartarazi zuen PZLk ez duela errespetatzen Europako Erkidegoko zuzenbidea exekuzioaren aurrean aurkaratze sistema mantentzen badu, hipotekaren azpiko mailegu-kontratuaren abusuzko klausulengatik, eta sisteman hori aktibatu ahal bada soil-soilik geroko deklarazioko prozesu baten bidez, zordunari hori igorri ondoren.

Modu berean, Juliane Kokott EBJZko abokatu nagusiaren ondorioak, 2012ko azaroaren 8an aurkeztuak, irmoak dira. Bere esanetan, ondasun hipotekatu edo pignoratuaren gaineko notariotza-tituluak exekutatzeke sisteman, gurean esaterako, exekuzioaren aurreko aurkaratze aukerak murriztuta daude, eta beraz, sistema hori bateraezina da Kontseiluaren 1993ko apirilaren 5eko 93/13/CEE Zuzentarauarekin, hain zuzen ere, kontsumitzaileekin egindako kontratuetan abusuzko klausulak arautzen dituen horrekin. Kasu horretan, kontsumitzaileak, exekuzio-prozeduran edo prozedura judizial bananduan, ezin du lortu babes juridiko eraginkorra Zuzentaru horretan aitortutako eskubideak egikartzeko, adibidez derrigorrezko exekuzioa behin-behinean eteten duen ebazpen judizialaren bidez. Bete-

beteen asmatzen du esaten duenean ez dela babes eraginkorra kontsumitzailearentzat kontratuaren abusuzko klausulen aurrean; kontsumitzaileak ezin du onartu defendatzeko aukerarik izan gabe hipoteka exekuzioa, etxebizitza enkantean jartzea eta desjabetzea, eta ezin du gerora soilik legitimatuta egon kalte-galeren akzioa egikartzeko. Europako Zuzentaruak eskatzen du kontsumitzaileak legezko errekurtsio eraginkorra izan behar duela maileguko klausulen abusuzko izaera egiaztatzeke, horrela derrigorrezko exekuzioa gelditu ahal izateke. Bere ustez, Zuzentaruak aitortutako eskubideen eraginkortasunak eskatzen du prozedura deklaratioboaren berri duen organo judiziala kaukera izatea behin-behinean eteteko exekuzio prozedura, derrigorrezko exekuzioa gelditzeke, kontratuko klausula baten abusuzko izaera egiaztatu arte. Modu horretan, eragotzi egiten da exekuzio prozedurak kontsumitzailearen kaltean egoera bat sortzea, hala nola etxebizitza galtzea, gerora hori konpontzea oso zaila edo ezinezkoa baita.

Azken finean, Europako Auzitegiak aitortzen du abusuzko klausulei buruzko Zuzentaru nazioko araudiaren aurkakoa dela, hala nola Espainiako araudiaren aurkakoa. Hipoteka-maileguan sartutako klausula baten abusuzko izaera aitortu nahi duen kalte-duna dagoen prozesu deklaratiboan, epaile eskudunak ezin ditu kautelazko neurriak hartu, zehatz esanda, exekuzio prozedura etetea, horiek azken erabakiaren eraginkortasun osoa bermatzeko beharrezkoak direnean.

Gizarte-larrialdiko egoera horrena urtean, gure Abokatuen Elkargoa inoiz ez da geldi egon, eta Elkargoaren gizarte-eginkizuna betez, **Hipoteka Aholkularitzaren eta Bitartekaritzaren Zerbitzua** sortu du. Horretan, administrazio publikoekin hitzarmenak eginda, aholkularitza juridikoa eman daiteke gehiegizko zorra duten familien interesak defendatzeko.

Zerbitzu hori osatzen dute arloan espezializatuta dauden Elkargoko kide batzuek. Aurretiazko hautaketa baten ostean, zerbitzu profesionalak eskaintzen ari dira finantza-entitateek ohiko etxebizitzari lotuta eskatutako hipoteka-exekuzioaren aurrean muturreko zaugarritasun egoeran dauden hipoteka-zordunen interesak babesteko.

Hona hemen Zerbitzuak dituen **eginkizunak**, besteak beste:

- Pertsonen eta familiei ohiko etxebizitzaren hipoteka ordaintzeko zailtasunei aurre egiteko aukerari buruz informazioa ematea.
- Hipoteka ez ordaintzeko egoeraren aurrean egin behar diren prozedura zehatzei buruz modu pertsonalizatuan aholkuak ematea.
- Bideragarritasunari lotutako azterketak ekonomikoak egitea.
- Zordunaren eta banku-entitatearen artean adostutako konponbideak aurkitzea hobetzeko perspektiba duten egoerarako edo loturan aldaketa jakin batzuk eginda, konponbidea eraginkorrak lortu ahal badituzte, hipoteka-exekuziorik izan gabe.
- Gizarte-laguntzen kudeaketa kasuan kasuko gizarte zerbitzuen bidez.
- Etxebizitza konponbideen kudeaketa egon dauden aukera publiko edo pribatuaren arabera.

Azken finean, Zerbitzu horren helburuak dira familia horiei aurrez aurre informazioa eta aholkuak ematea hipoteka ordaintzeko zailtasunaren urrean dituzten prozedura zehatzei buruz, neurri zuzentzaileak planteatzea hipoteka kuotak ordaindu ahal izateko, neurri alternatiboak negoziatu eta balizko hipoteka exekuzioaren kasuetan bitartekaritza bideak aurkitzea; hau da, hipoteka-maileguak ordaintzeko zailtasunak dituzten eta, beraz, ohiko etxebizitza galdu dezaketen pertsona eta familiei erraztu egiten zaie zordunaren eta finantza-entitatearen arteko komunikazioa eta bitartekaritza, konponbide adostua lortzera zuzendutako informazioa eta aholkularitza, hipoteka-exekuzioa bide judizialean saihesteko eta/edo amaitzeko. Horretarako, Abokatuen Elkargoko profesionalen aholkularitza izango dugu, doan.

Artikulu hau egin denean, udal batekin lehen hitzarmena sinatuta dago aholkularitza juridiko hori BJABOk xede horretarako sortutako zerbitzuaren bidez emateko. Zehatz esanda, Sestaoko Udalarekin sinatu da hitzarmena. Hala ere, argitaratzen denerako beste batzuk ere sinatuta izatea espero dugu. Hori sintoma ona izango da, hau da, hipoteka exekuzio delikatu eta zailen aurrean babesik gabe pertsona gutxiago daudela esan nahiko du.

ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN BARNE BAROMETROA

Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak eskatuta, Metroscopia inkesta enpresak, 2012ko abendua eta 2013ko urtarrila bitartean, estatu osoko jarduneko 2.900 lankideri inkesta egin zien. Helburua gure lanbideko gai garrantzitsu eta gaurkotasan handikoei buruz dugun iritzia jakitea zen.

Iritzi barometroa hiru urterik behin egiten du Kontseiluak, eta aurten lau bloke handiri buruzkoa zen: Tasen Legea, justiziaren egoera, doako justizia eta krisia eta lanbide jarduna.

Nazioan eta EAEn lortutako emaitza nabarmenenak laburtuko ditugu:

1. TASA JUDIZIALEN LEGEA

JOAN DEN AZAROAREN 14AN TASA JUDIZIALEN LEGE BERRIA ONETSI ZEN. HORREN ARABERA, 50 ETA 70 EURO BITARTEAN ORDAINDU BEHAR DIRA AUZITEGIETAN AURKEZTEN DIREN DEMANDA ETA ERREKURTSO GUZTIENGATIK. ADOS ZAUDE? (Ehunekoetan) *			
		Espainia	EAE
Justizia Ministerioak alderdi guztien adostasuna lortu behar zuen legea presaz eta ia-ia eztabaidarik gabe onetsi aurretik; lege horren aurka agertu dira epaileak, abokatuak eta Estatu Kontseilua	Ados	96	95
	Ez ados	4	4
Tasa berriak direla eta, pertsona askok ez dituzte haien eskubideak epailearen aurrean defendatuko, eta defentsa-gabezia egoeran geratuko dira	Ados	92	90
	Ez ados	8	9
Tasa berriak direla bide, aberatsentzat edo oso txiroentzat den justizia bat eta gainerako gizartearentzako beste justizia bat sortuko dira. Izan ere, epailearen aurrera joango dira soil-soilik egoera ekonomiko ona dutenak edo doako justizia jaso dezaketen pertsonak	Ados	86	86
	Ez ados	13	13
Tasen sistema ezarri beharko litzateke modu eskusiboan ausarkeriazko demandak zigortzeko	Ados	80	77
	Ez ados	18	23
Espainiako Abokatutza ahal duen guztia egiten ari da Tasen Legeari aurka egiteko eta lege hori berrikustea edo baliogabetzea sustatzeko	Ados	69	77
	Ez ados	26	18
Tasa judizial berriek auzitegiara denbora irabazteko soilik doazenak geldiaraziko dituzte, eta horrela justiziak hobeto eta azkarrago funtzionatu du	Ados	19	18
	Ez ados	80	82

Esaldiak adostasunaren ehuneko handitik txikira ordenatuta daude; elkarrizketetan ez ziren ordena horretan irakurri.

ZURE USTEZ, GAUR EGUNGO JUSTIZIA MINISTROAK, ERREFORMAK ETA NEURRI BERRIAK PLANTEATUTA (HALA NOLA TASEN LEGEA EDO BOTE-RE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKO BERRIA), IDEIAK ARGI DITU ETA BADAKI ZERTAN ARI DEN EDO INPROBISATZEN ARI DA ALDERDIEI ENTZUN GABE ETA BALIZKO ONDORIOAK EDO ALTERNATIBAK EZ DITU KONTUAN HARTZEN? *		
	Espainia	EAE
Ideiak argi ditu eta badaki zertan ari den	19	18
Inprobisatzen ari da	75	79

2. JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN EBALUAZIOA

ZURE USTEZ, NOLA FUNTZIONATZEN DU GAUR EGUN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAK ESPAINIAN? (Ehunekoetan) *			
		Espainia	EAE
	Oso ondo + Ondo	14	29
	Oso txarto + Txarto	74	50

3. DOAKO JUSTIZIAREN EGOERA

AZKEN URTEAN DOAKO JUSTIZIAREN KASUREN BAT IZAN DUZU? (Ehunekoetan) *		
	Espainia	EAE
Bai	37	42
Ez	63	58

* Ehunekoen batuketa bertikalean, 100era arte dagoen aldeaz Ez daki/Ez du erantzun aukerari dagokio.

		Espainia	EAE
AZKEN URTEAN DOAKO JUSTIZIAREN KASUEK ZEIN EHUNEKO HARTZEN DUTE ALDI BEREAN IZAN DITUZUN GAI PROFESIONALEKIN ALDERATUZ GERO? Galdera hau azken urtean doako justiziaren kasuren bat izan dutenei egin zaie (Ehunekoetan) *	%10 edo gutxiago	33	38
	Laurdena gutxi gorabehera	18	21
	Herena gutxi gorabehera	14	13
	Erdia gutxi gorabehera	13	13
	Hiru laurden gutxi gorabehera	11	10
	Hiru laurden baino gehiago/ia guztiak/guztiak	8	2

ESAN DUTENEZ, OFIZIOKO TXANDAKO ORDAINSARIETAN IZANDAKO MURRIZKETEKIN EZINEZKOA IZANGO DA KALITATEZKO DOAKO JUSTIZIARI EUSTEA. ADOS ZAUDE HORREKIN?

		Espainia	EAE
Galdera hau azken urtean doako justiziaren kasuren bat izan dutenei egin zaie (Ehunekoetan) *	Ados	77	79
	Ez ados	21	19

4. ABOKATUTZAREN EGOERA PROFESIONALA

4.1. Lanbide jarduera

		Espainia	EAE
ZENBAT BEZERO, KONTSULTA ETA TRANSAKZIO ARTATU DITUZU GUZTIRA ETA GUTXI GORABEHERA ZURE BULEGOAN AZKEN URTEAN? (Ehunekoetan) *	50etik behera	36	35
	50 eta 100 bitartean	20	32
	100 eta 200 bitartean	16	21
	200 eta 300 bitartean	5	5
	300etik gora	6	3

		Espainia	EAE
IZAPIDETZEN DITUZUN GAJETATIK ZENBAT EBAZTEN DIRA EPAITEGIAN? (Ehunekoetan) *	Batere ez	4	4
	%10 edo gutxiago	13	21
	Laurdena gutxi gorabehera	9	11
	Herena gutxi gorabehera	7	5
	Erdia gutxi gorabehera	20	20
	Erdia eta hiru laurden bitartean	19	17
Hiru laurden baino gehiago/ia guztiak/guztiak	26	20	

4.2. Krisi ekonomikoa eta lanbide jarduna

ZURE USTEZ, ABOKATU ASKOK ZAILTASUN EKONOMIKO LARRIAK DITUZTE GAUR EGUN LANBIDE JARDUNETIK BIZITZEA LEHEN BAINO ZAILAGOA DELAKO EDO HAU BETI GERTATU DA GUTXI GORABEHERA ORAIN BEZALA? (Ehunekoetan) *

	Espainia	EAE
Orain lehen baino zailagoa da lanbide jardunetik bizitzea	80	75
Hau beti gertatu da, orain bezala	16	20

4.3. Teknologia berriak abokatutzan

Zure ustez, teknologia berriak garrantzitsuak dira abokatu lanbidean aritzeko? (Ehunekoetan) *

	Espainia	EAE
Oso + nahiko garrantzitsua	97	96
Apur bat + batere garrantzitsua	2	3

ZURE USTEZ, ZURE ELKARGOAK BEHAR DEN BESTEKO BALIABIDEAK ERABILTZEN DITU MODERNIZATZEKO ETA KIDE BERRIEN ARTEAN TEKNOLOGIA BERRIAK SUSTATZEKO? (Ehunekoetan) *

	Espainia	EAE
Bai	66	76
Ez	30	20

GEHITZEKO INBERTITZEN JARRAITU BEHAR DELA? (Ehunekoetan) *

	Espainia	EAE
Bai	97	92
Ez	3	5

* Ehuneko batuketan bertikalean, 100era arte dagoen alde Ez daki/Ez du erantzun aukerari dagokio.

DOPINAREN ARAUKETA KIROL ESPARRUAN LEGE ORGANIKOAREN PROIEKTU BERRIAREN ARGITAN

ELENA ATIENZA MACÍAS

Deustuko Unibertsitateko ikerlaria Zuzenbideari eta Giza Genomari buruzko unibertsitate arteko katedran, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

1. SARRERA

Ukaezina da kirol fenomenoak azken hamarkadetan dimentsio ikaragarria lortu duela, eta esparru guztietara proiektatzen dela —gizartea, kultura, ekonomia, arlo juridikoa eta baita arlo politikoa ere—, eta gaur egun herritarren bizitza-sistemari datzekion alderdi bihurtu dela, hau da, kirol praktika gizarte-ehunean sakon errotu da, eta mundu osoko milioika pertsonaren eguneroko bizitzako atal garrantzitsu bihurtu da. Horrekin lotuta, kirolak Estatu bateko mugak gainditzen ditu, hau da, kirol praktikekin herrialdeen arteko harremanak errazten dira, nazioarteko elkar ulertzea sustatzen da, eta beraz, herrialde askoren definizioaren paradigma eta ordezkatzeko dituen herrialdeen garapenaren estandarte bihurtu da —modu horretan, askotan Brasil futbolarekin identifikatzen da, eta azken hamarkadetan, Espainia tenisarekin—. Ildo horretatik, ekonomiaren eta gizarte osoaren transnazioalizazioak edo globalizazioak lotuta izan du kirol jardueraren nazioz gaitzako dimentsio gero eta handiagoa. Horren guztiaren eraginez, kirol zuzenbideak diziplina juridiko moduan autonomia eta berezko izatea lortu ditu; hala ere, kirol jarduerak analisirako hainbat perspektiba eskaintzen ditu: Filosofia, (Bio)Etika, Soziologia, Psikologia, medikuntza zientziak (zehatz esanda, Kirol Medikuntza espezialitatea) eta, nola ez, Zuzenbidea.

Deskribatutako agertoki horretan, dopinak garrantzi handia hartu du —oro har, debekatutako substantziak eta/edo metodoak erabiltzen dira errendimendua handitzeko kirol lehiaketa baten aurretik—, eta kirol garaikidean gai eztabaidatsu eta gaur-gaurkoa bihurtu da. Are gehiago, gaur egun arazo global bihurtu da eta mundu osoan egiten diren nazioarteko kirol gertaerei lotuta dago. Hain zuzen ere, kirol egutegian esanguratsuak diren hitzorduek —hala nola Londresen 2012ko udan egindako Joko Olinpikoak, Rio de Janeiron 2016an egingo diren Joko Olinpikoak— dopinaren itzala gainean izango dute beti, eta ziurrenik, dopinak eginkizun garrantzitsua izango du. Gaia oso garrantzitsua dela ikusteko, *doping* kasu larriek gora egin dute Espainian zein munduko gainerako lekuetan, eta lehen mailan daude komunikabideetan eta arduradun politiko eta kirol arduradunen agendetan. Azken urteetan, arazo horrek protagonismo handia lortu du eta *in crescendo* doa, kasu ospetsuak ikusita, hala nola Ben JOHNSON, Marion JONES eta Lance

ARMSTRONG —munduko kirolean dopinaren kasurik eza-gunenetakoa azken urteetan—, eta maila nazionalean, Alberto CONTADOR txirrindularia. Horrekin batera, polemika handia sortu da kirolaren garbitasunaren edo *fair play* ize-nekoaren inguruan —oso ezagunak izan diren OPERACIÓN PUERTO eta OPERACIÓN GALGO kasuekin, azken horretan tartean egon baitira Marta DOMÍNGUEZ atleta ezaguna eta osasun arloko profesional ugari eta entrenatzaileak—, eta gure herrialdea kinka larrian dago.

2. ARAUDIA

Modu horretan, dopinak kirolarien osasunean, lehiaketa desberdinetako parte-hartzaileen baldintza-berdintasunean eta kirol jardueren bidez gizarte osora transmititu nahi diren balioen edo kirolaren etikaren “galbideratze” faktore moduan duen eragina —dopinaren aurkako araubidea oinarritzen duten hiru zutabeak— dela eta, erakunde pribatu eta publikoetatik, estatuko eta nazioarteko erakundeetatik, praktika hori saihesteko mekanismoak garatu dira. Horren ondorioz, azken urteetan, kirol lehiaketetan dopinaren kontrola lehen mailako ardura bihurtu da, eta gizartearen garrantzi handia lortu du. Ardura hori arauen esparruan ere islatu da. Modu horretan, dopinaren gaia Espainian protagonismo juridiko oso garrantzitsua lortzen ari da: Ministroen Kontseiluak — José Ignacio WERT Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroak proposatuta—, 2013ko martxoaren 8ko bileran, hau Gorte Nagusietara igortzea onetsi zuen: *Kirolariaren osasuna babesteko eta kirol jardueran dopinaren aurka borroka egiteko Lege Organikoaren Proiektua*. Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialean (GNAO) argitaratu zen 2013ko martxoaren 15ean. Araudi berri horretan —hala ondorioztatzen da lege organikoaren proiektuko zioen azalpenetik— zenbait neurri jasotzen dira Espainiak nazioartean dopinaren arloan hartutako konpromisoak betetzeko eta, batez ere, Dopinaren aurkako Munduko Kodean jasotako araudira erabat egokitzeko.

2.1. Gaiaren ikuspegi europarra eta nazioartekoa

Espainian nagusi den legegintza-egoera hobeto ulertzeko, komeni da Europako eta nazioarteko testuinguruan sartzea. Horrela, bi tresna juridiko nabarmendu behar dira, dopina-

ren inguruko araudiaren etorkizuneko oinarriak ezartzeko faktore giltzarriak izan baitziren, eta liderrak baitira kasuan kasuko esparruetan —Europar eta nazioartean—, bakoitza bere ezaugarri bereziekin. Batetik, *Kirolean Dopinaren aurkako Hitzarmena*, *Europako Kontseiluarena* eta, bestetik, *Dopinaren aurkako Munduko Kodea*, Dopinaren aurkako Munduko Agentziarena, eta horren paraleloa den Kiroleko Dopinaren aurkako Konbentzioa, UNESCOrena.

Europar, Europako Kontseilua izan zen kiroleko dopinaren aldeko ardura erakutsi zuen lehen erakundea. Kontseiluak onetsitako tresnarik esanguratsuenak Dopinaren aurkako Europako Hitzarmena izan zen. Baina ez zen bakarra izan, horren aurretik eta atzetik ebazpen, gomendio eta adierazpen ugari etorri baitziren. Egintza horiek, indar juridiko loteslerik izan ez arren —*soft law* izenekoaren barruan sartzen dira—, Hitzarmen hori zenbait urte geroago, hain zuzen ere 1989ko azaroaren 16an, egiteko bidegileak izan ziren. Ohar garrantzitsuenetako bat da eraginkortasun juridikoa dutela, hau da, nazioarteko ituna denez, izaera loteslea du hori onesten duten estatuentzat. Hala ere, Europako eskualde-esparrura mugatutako eraginkortasuna da eta ez du irismen unibertsalik. Beraz, hitzarmen hori, garrantzitsua izan arren, ez da nahikoa izan nazioz gaindikoa arazo bat jorrazteko. Hala ere, azpimarratzekoa da abiapuntu bikaina izan zela nazioarteko benetako konbentzioa egiteko.

Nazioarteko ikuspuntutik eta Dopinaren aurkako Munduko Kodearen inguruko koiuntura historikoari dagokionez, data bat giltzarria izan zen abiapuntu moduan: 1999ko otsaila.

Kiroleko Dopinari buruzko Lehenengo Mundu Konferentzia egin zen (Frantziako Tourreko 1998ko eskandaluari erantzunez, kirol mundua barrutik astindu zuen eta), Lausanan (Suitza), Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren babesean (aurrerantzean, COI), Juan Antonio SAMARANCH espainiarra erakundeko presidente zela. Hitzaldi horren barruan egingako lana amaitzeko, *Lausana adierazpena kiroleko dopinari buruz* egin zen, Dopinaren aurkako Munduko Agentziaren ernamuina (edo AMA gaztelaniaz, *Word Anti-Doping Agency*, ingelesez edo WADA). Agentzia 1999ko azaroaren 10ean eratu zen Lausanan kiroleko dopinaren aurkako borroka sustatu eta koordinatzeko nazioartean, eta modu parekidean osatu zuten kirol erakundeetako, gobernu erakundeetako eta gobernu arteko erakundeetako ordezkariak. Aipagarria da AMA zuzenbide pribatuko fundazio moduan hartzea eta Suitzako zuzenbidearen mende jartzea, horrek ondorio nabarmenak baititu. Garrantzirik handiena zuen konpromisoa borondatearen autonomiaren esparrura alboratu zen.

Gertaera garrantzitsu bat 2003an izan zen. AMAk Dopinaren aurkako Munduko Kodea egin zuen. Horren ondorioz, apurka-apurka nazioan elkarren artean oso desberdina kez ziren arauak agertu ziren eta, zalantzarik gabe, nazioarteko arau-harmonizazioan aurrerapena lortu zen. Urte berean, eta Kiroleko Dopinari buruzko Munduko Bigarren Konferentzian, Kopenhagen (Danimarka), *Kopenhageko Adierazpena* dela bide, ehun herrialdek baino gehiagok aho batez onetsi zuten Dopinaren aurkako Munduko Kodea. Hain zuzen ere, Dopinaren aurkako Munduko Kodearen lehen bertsioa,



gaur egun indarrean dagoen hori, 2003ko urrian onetsi zen eta 2004ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean. Ondoren, 2007ko azaroan, Kiroleko Dopinari buruzko Munduko Hirugarren Konferentzian, Madrilen, testua berrikusi egin zen, eta AMA Fundazioaren Kontseiluak jatorrizko bertsioari egindako zuzenketak onetsi ziren, 2007ko azaroaren 17an. Zuzenketa horiek 2009ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean¹.

Behin puntu honetara iritsita, ezin dugu ahaztu AMAren eta bere Kodearen eskutik sortzen ari zen dopinaren nazioarteko sistemaren konplexutasuna eta berezitasuna. Erakundearen izaera juridikoa du, fundazio pribatu moduan, Suitzako zuzenbidearen mendekoa, eta hertsadura osagai bakarra bere Estatutuen 4.1 artikuluan ezarritakoa zen, herrialde kideek gomendioei jarraitzeko duten beharrezko *konpromiso* moral eta politikoei buruzkoa. Modu horretan, konpromiso politikora jotzea ez zen nahikoa, bereziki AMAren aldetik jarri nahiz iren betebeharrak batzuk gatazka argian zeudelako herrialde batzuetako konstituzioetako manuekin. Horien arabera, hori ez zen behar den besteko justifikazioa konstituzioak eraldatzeko. Pribatuak dopin arazoak kudeatu eta konpontzeko formula moduan izandako krisia agerian geratu zen eta AMAren nortasun juridikoa aldatzea hautatu ez zen arren, estatuak (nazioarteko) zuzenbide pribatuko tresna baten bidez, hala nola Doppinaren aurkako Munduko Kodearen bidez, lotzeko zeuden zailtasunen eraginez, nazioarteko zuzenbide publikoko tresna bat bilatu zen, Gobernuak hartutako konpromiso politikoari estaldura eta lotura handiagoa emateko.

Aurrekoari lotuta, pauso garrantzitsua 2005ean gertatu zen, UNESCOren 33. Konferentzia Orokorrean, Parisen, *Kiroleko Dopinaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa* argitaratu zenean. Testua 2005eko urriaren 19an onetsi zen, eta herrialde sinatzaileek berretsi zuten, arauen harmonizazioa egin ahal izan zen eta Dopinaren aurkako Munduko Kode hori sinatzaileen lurralde-esparruan betebeharrak bihurtu zen (ez osorik, ikusiko dugunez). Konbentzio horren bidez, beraz, araudiak markatutako muga batzuen barruan, Dopinaren aurkako Munduko Kodea Nazioarteko Zuzenbide Publikoan sartu nahi zen, eta estatuei betebeharrak ezarri zitzaizkien bertako legeriak Kode horretara bildutako *printzipioetara* egokitzeko. Hain zuzen ere, eta ñabardura garrantzitsua egin behar da hemen, betebeharrak izaera hori —Konbentzioaren 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz— Kodeko *printzipioei dagokienez soilik* ezar daitezke. Beraz, herrialdeek —besteak beste, Espainia, Konbentzioa 2006ko urriaren 25ean berretsi baitzuen— Dopinaren aurkako Munduko Kodearen printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartu dute, baina testu zehatzak eta, beraz, betebeharrak ez du ukitzen Kodea betetzea, printzipioak soilik. Bestela esanda, Kodea betetzea —printzipioei dagokienez izan ezik— ez dago nazioarteko betebeharraren barruan. Baina, berriro ere, baieztapen horrek ñabardura asko behar ditu, batzuen usiez desberdintasun nabarmena baitago lotura juridikoaren

eta benetako loturaren artean. Azken hori izango litzateke Konbentzioa sinatzea soil-soilik nazioarteko kirol-gertaerak esleitzeko parte hartzeko —hau da, Joko Olinpikoei begira— edo gizarte-etzabaidaren barruan, testua berresten eta betetzen ez bada utzikeria moduan hartuko litzateke edo kasuan kasuko herrialdeak dopinaren arloan betebeharrak intentsitate baxuarekin betetzen dituela esango litzateke.

Azaldutakotik ondorioztatzen da Dopinaren aurkako Munduko Kodearen arazo nagusia lotura juridikoaren maila dela, AMAk xede horretarako duen arau-tresnak motibatuta. Horri gehitu behar zaio ukitu anglosaxoiko kodea dela eta, beraz, ez duela zerikusirik Espainiako tradizio juridikoarekin eta harreman pribatuaren Estatuak zuzenbide publikoko harremanen esparruan ere ezarri ezin dituzten betebeharrak batzuk ezartzen dituela. Zehatz esanda, doktrina-sektore batzuen esanetan, testuak oinarritzeko eskubideen nazioko eta nazioarteko eskema urratzen du; salaketarik argiena inimitaterako eskubideari buruzkoa da.

2.2. Legegintza-berrikuntzak Espainiako arauketan

2.2.1. Estatuan: Kiroolariaren Osasuna Babesteko eta Kirol Jardueren Dopinaren aurka borrokatzeko Lege Organikoaren proiektua.

Lehenengo eta behin, urriaren 15ean, 10/1990 Legea, Kiro-larena, onetsi zen. VIII. Tituluan kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen kontrola eta kirol praktikaren segurtasuna arautzen dira. Hori abiapuntu garrantzitsua izan zen Espainiako kirol praktikan dopinaren aurka egiteko esparrua ezartzeko. Bada, lege horrek oinarri izan zuen errealitate sozio-kirolekoa eta politiko-juridikoa azkar aldatzen hasi zen, arauketak horrek lehen pausoak eman zituen dataren antzekoetan. Horrela, aurretik azaldu dugun moduan, 1989an, Europako Kontseiluak Kiroleko Dopinaren aurkako Hitzarmena onetsi zen; urte batzuk geroago, 1999an, Kiroleko Dopinari buruzko Munduko Konferentzia egin zen, eta horretan argi geratu zen botere publikoen eta kirol erakundeen arteko lankidetzan sakontzeko beharra. Horrek norabide aldaketa ekarri zuen kiroleko dopinaren tratamenduan, eta azpimarratu egin zen nahitaezkoa zela nazioarteko lankidetzak. Gerora, horrek ekarriko zituen Dopinaren aurkako Munduko Kode ospetsua eta UNESCOren geroko Konbentzioa.

Premisa horiekin, Kiroloren 10/1990 Legearekin ezarritako sistema berritzailea ez zen nahikoa eta beharrezkoa zen dopinaren aurka borrokatzeko estatu araudia eta Kode hark aldarrikatzen zituen printzipioak harmonizatzeko sistema ezartzea eta egokitzea —Europako beste herrialde batzuetan bezala, bertako legeriak modu askotara aldatu eta gaurkotu baitituzte—, kirolean dopinaren aurka eraginkortasun handiagoarekin borrokatzeko. Xede horri erantzun zion azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoak, Osasuna Babesteari eta Kiroleko Dopinaren aurka Borrokatzeari buruzkoak (aurrerantzean, 7/2006 LO). Araudi hori gaur egun indarrean dago dopinaren arloan Espainian. Lege hori aldarrikatzea

¹ AMAk oraintsu argitaratu du Dopinaren aurkako Munduko Kodearen bigarren zirriborroa. 2015erako aurreikusita dago, Kodea berrikusteko prozesuaren bigarren kontsulta-fasean jasotako gomendioak kontuan hartu ondoren. Hemen dago eskuragarri: www.wada-ama.org

funtsezko gertaera izan zen dopinarena urkako borrokaren historian Espainiako antolamendu juridikoan. Arau horrek xedapenen sistema osoa zeukan, eta horren arabera, dopina babesteko moduko zenbait ondasun juridikotan eragina zuen arazoa zen, hala nola kirolarien osasuna, joko garbia kirolean eta kirolaren dimentsio etikoa. Bestalde, historikoa izan zen lege organiko moduan aldarrikatzea, lerrun hori oinarritzko eskubideetarako gordeta baitago. Era berean, aipagarria da horren bidez artikulua berria aldarrikatu zela —zehatz esanda, 361 bis artikulua— Zigor Kodean, eta horren arabera, osasun publikoaren zigor tutoretzaren esparrua ezartzen dela kiroleko dopinari lotutako jardueretan. Kirolarien inguruko pertsonen egindako jarduerak zehatzen ditu.

Hori bai, garrantzitsua da nabarmentzea Lege hori aldarrikatu eta gero berretsi zuela Espainiak UNESCOren Konbentzioa. Hori konpromiso argia izan zen herrialde horretarako nazioartera begira. Gertaera horrek eta 7/2006 Legeak modu eskusiboan dopina erdigune izateak eta osasunaren babesarekin lotutako xedapenak praktikara ez eramateak erakutsi zuten nahitaezkoa zela 2006ko Lege Organikoa aldatzea. Aurretik zegoen testua eraldatu behar zen. Erreforma proiektu hori, gorabehera politiko eta teknikoengatik, bertan behera geratu zen, eta orain berriro heldu zaio azalpen honen hasieran aipatutako lege organikoaren proiektuarekin.

Variaciones sobre la presunción de inocencia: análisis funcional desde el Derecho Penal, Sánchez-Vera Gómez-Trelles, Javier Marcial Pons (Madrid)

El derecho a una segunda instancia con todas las garantías, Alcacer Guirao, Rafael Tirant lo blanch (Valencia)

La responsabilidad por imprudencia en los accidentes de tráfico, Cáceres Ruiz, Luis Tirant lo blanch (Valencia)

Uso ilícito de las tarjetas bancarias, López Jiménez, José M^a Bosch (Barcelona)

Derecho Penal de la construcción: aspectos urbanísticos, inmobiliarios y de seguridad en el trabajo (adaptada a la L.O.), Pozuelo Pérez, Laura (coord.); (otros) Comares (Granada)

Comentarios a la legislación penal especial, Faraldo Cabana, Patricia (dir.); Brancariz García, José Ángel (coord.) Lex Nova (Valladolid)

La responsabilidad criminal de las personas jurídicas, de los entes sin personalidad y de sus directivos: análisis de los arts. 31 bis y 129 del Código Penal, Zugaldía Espinar, José Miguel Tirant lo blanch (Valencia)

Responsabilidad penal por productos defectuosos, Tirant lo blanch (Valencia)

La cancelación de los antecedentes delictivos, Roig Torres, Margarita Tirant lo blanch (Valencia)

ZUZENBIDE POLITIKOA

El derecho a la tutela judicial efectiva: análisis jurisprudencial, Ruiz-Rico Ruiz, Gerardo; Carazo Liebana, M^a José Tirant lo blanch (Valencia)

ZUZENBIDE PROZESALA

Estudios sobre el significado e impacto de la mediación: ¿Una respuesta innovadora en los diferentes ámbitos jurídicos?, Etxeberria Guri-di, José Francisco (dir.); (otros) Aranzadi (Cizur Menor)

El principio de la buena fe procesal, Pico i Junoy, Joan Bosch (Barcelona)

El procedimiento de separación y divorcio en la violencia de género, Martínez Rodríguez, José Antonio Bosch (Barcelona)

Curso superior de probática judicial: cómo probar los hechos en el proceso, Muñoz Sabate, Lluís La ley (Madrid)

HIPOTEKA ZUZENBIDEA

El procedimiento de ejecución hipotecaria, Vilalta, A. Esther; Méndez, Rosa M^a. Bosch (Barcelona)



DERECHO FISCAL

➤ **Orden HAP/470/2013, de 15 de marzo**, por la que se **aprueban los modelos de declaración** del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre el Patrimonio, ejercicio 2012, se determinan el **lugar, forma y plazos de presentación** de los mismos, se establecen los **procedimientos de obtención o puesta a disposición, modificación y confirmación o suscripción del borrador** de declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, y se determinan las **condiciones generales y el procedimiento para la presentación de ambos por medios telemáticos o telefónicos**. (BOE 26-3-13).

➤ **Norma Foral 2/2013, de 27 de febrero**, del Impuesto sobre el Patrimonio. (BOB 4-3-13).

Entre las novedades introducidas destaca que se articula una nueva regulación de la exención de participaciones en entidades dedicadas a la realización de actividades económicas, se modifican las reglas de determinación de la base imponible del impuesto aplicables a los bienes inmuebles y se refuerza la aplicación de la cláusula de no confiscatoriedad articulada en torno a la existencia de una reducción de la cuota, en atención al límite conjunto entre las del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre el Patrimonio, incorporando una serie de normas que impidan que dicha cláusula ampare realidades patrimoniales ajenas a las que a través de su aplicación deben ser protegidas.

➤ **Norma Foral 3/2013, de 27 de febrero**, por la que se aprueban **medidas adicionales para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y otras modificaciones tributarias**. (BOB 4-3-13).

En IRPF e IS se delimitan los supuestos en los que son deducibles determinados gastos como atenciones con proveedores o clientes, gastos de representación o vehículos, exigiendo correlación entre ingresos y gastos.

Se establece la obligación de declarar la tenencia de bienes en el extranjero y las sanciones en caso de ocultación de tales bienes.

Se prevé la obligación de todos los obligados tributarios que realicen actividades económicas de llevar un libro registro de operaciones económicas que deberá

transmitirse periódica y telemáticamente a la Administración tributaria.

Se regula una nueva determinación de la valoración de las retribuciones en especie y se establece la obligación de acudir, como mínimo al acto de conciliación, para que la indemnización por despido.

En la NFGT se endurece notablemente el régimen sancionador, duplicándose las sanciones y se refuerza el sistema de asistencia mutua entre las distintas administraciones para evitar el fraude.

DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

➤ **Real Decreto 156/2013, de 1 de marzo**, por el que se regula la **suscripción de convenio especial por las personas con discapacidad que tengan especiales dificultades de inserción laboral**. (BOE 2-3-13).

➤ **Real Decreto-ley 5/2013, de 15 de marzo**, de **medidas para favorecer la continuidad de la vida laboral de los trabajadores de mayor edad y promover el envejecimiento activo**. (BOE 16-3-13).

Entre las modificaciones más importantes introducidas destacan las siguientes:

- Se permite a aquellos trabajadores que han accedido a la jubilación al alcanzar la edad legal y que cuenten con largas carreras de cotización, que puedan compatibilizar el empleo a tiempo completo o parcial con el cobro del 50% de la pensión, con unas obligaciones de cotización social limitadas, pero con medidas cautelares para evitar que las empresas utilicen esta modalidad para reducir costes.

- Se modifican las condiciones de acceso a la jubilación anticipada y la cuantía a percibir.

- Se introducen modificaciones en la regulación de los contratos a tiempo parcial y de relevo.

- Se regulan las aportaciones económicas por despidos que afecten a trabajadores de 50 o más años en empresas con beneficios con el objetivo de desincentivar el despido de trabajadores por razón de su edad.

- Nuevo régimen de incompatibilidades de la pensión de jubilación o retiro de clases

pasivas.

- El derecho a subsidio para mayores de 52 años se dificulta al computarse para su acceso no sólo las rentas del contribuyente sino la de todos los miembros de la unidad familiar.

- Se equipara para el colectivo de socios de cooperativas el régimen de acceso a la pensión de jubilación parcial previsto para los trabajadores por cuenta ajena.

- Las pensiones reconocidas en otro Estado se tendrán en cuenta a efectos de determinar la concurrencia o no de dependencia económica para el reconocimiento del complemento por mínimos de las personas con cónyuge a cargo.

➤ **Decreto 183/2013, de 19 de marzo**, por el que se desarrolla el **programa de apoyo financiero a pequeñas y medianas empresas, personas empresarias individuales y profesionales autónomas para el año 2013**. (BOPV 22-3-13).

OTROS

➤ **Orden PRE/421/2013, de 15 de marzo**, por la que se desarrolla el Real Decreto 1837/2008, de 8 de noviembre, en relación con la **prueba de aptitud que deben realizar los abogados y procuradores nacionales de algún Estado miembro de la Unión Europea y de los Estados parte del Espacio Económico Europeo** para acreditar un conocimiento preciso del derecho positivo español. (BOE 18-3-13).

La presente Orden tiene por objeto desarrollar la prueba de aptitud con motivo de la adhesión de Bulgaria y Rumanía, así como a determinados aspectos del ejercicio de la profesión de abogado.

➤ **Real Decreto-ley 6/2013, de 22 de marzo**, de **protección a los titulares de determinados productos de ahorro e inversión y otras medidas de carácter financiero**. (BOE 23-3-13).

➤ **Orden HAP/490/2013, de 27 de marzo**, por la que se **modifica** la Orden HAP/2662/2012, de 13 de diciembre, por la que se aprueba el **modelo 696 de autoliquidación, y el modelo 695 de solicitud de devolución, de la tasa por el ejercicio de la potestad jurisdiccional** en los órdenes civil, contencioso-administrativo y social y se determinan el lugar, forma, plazos y los procedimientos de presentación. (BOE 30-3-13).

TRIBUTU ZUZENBIDEA

> **HAP/470/2013 Agindua, martxoaren 15ekoa**, honen bidez honako kontuak arautzen dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren **inprimaki-ereduak**; horiek **aurkezteko lekua, modua eta epeak**; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren **zirriborroaren** inguruko kontu guztiak –lortzea, aldatzea, edota baieztatzea–; eta **modu telematikoen bidez edo telefonoz horiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura** (BOE, 13-3-26).

> **2/2013 Foru Araua, otsailaren 27koa**, Ondarearen gaineko zergari buruzkoa (BAO 13-3-4).

Berritasune artean, batetik, beste erregulazio bat ematen zaie ekonomia-jarduerak egiten dituzten erakundeetako partaidetzak dituzten salbuespenei. Bestetik, arau komun batzuk ezartzen dira, zergaren zerga-oinarria zehazterakoan ondasun higiezin guztiei aplikatu beharrekoak. Eta, azkenik, konfiskazioaren aurkako klausularen aplikazioa indartzen da; izan ere, kuotaren murrizpena egin daiteke, eta baterako muga bat jartzen da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kuotetarako. Gainera, zenbait arau ere jartzen dira indarrean, klausula hori bakarrik erabil dezaten hura aplikatuz babestu gura diren ondare-errealitateek, eta ez beste batzuek.

> **3/2013 Foru Araua, otsailaren 27koa**, honen bidez, **zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk** onartzen dira (BAO, 13-3-4).

PFEZ eta SZ direla eta, zehatz ezarri da zein kasutan izango diren kengarri ordezkari-ta-gastuak edo hornitzaile zein bezeroekiko harremanen ondoriozkoak, eta zein kasutan ez. Horrekin batera, bitartekoak emango dira, gastu horien helburua eta xedea kontrolatu ahal izateko.

Halaber foru arau honen bitartez ezarri da atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharko dela. Arau hori hausteari zehapen-araubidea erantsi zaio.

Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadun guztiek izan beharko dute nahitaez eragiketa ekonomikoen erregis-

troliburu bat, eta han jaso erakundearen diru-sarrera eta gastu guztiak. Gainera, liburu hori Ogasun Administrazioari igorri beharko zaio aldian-aldian.

Halaber, birformulatu egin dira gauzako etekinen balorazioa zehazteko arauak eta adiskidetzegintzaren beharra ezartzen da zenbait ondorioetarako.

Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan nabarmen gogortu da zehapen-araubidea eta administrazioak elkarri laguntzeko tresnak onartzen dira zerga-iruzurraren kontra egiteko.

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZA

> **156/2013 Errege dekretua, martxoaren 1ekoa**, lana aurkitzeko zailtasunak dituzten desgaituen aldeko itun bereziaren baldintzak arautzen dituena (BOE, 13-3-2).

> **5/2013 Errege lege-dekretua, martxoaren 15ekoa**, honen bidez **edadeko langileen lan bizi-tza mantentzeko eta zahartzeko aktiboa sustatzeko neurriak** ezartzen ditu (BOE 13-3-16).

Entre las modificaciones más importantes introducidas destacan las siguientes:

- Se permite a aquellos trabajadores que han accedido a la jubilación al alcanzar la edad legal y que cuenten con largas carreras de cotización, que puedan compatibilizar el empleo a tiempo completo o parcial con el cobro del 50% de la pensión, con unas obligaciones de cotización social limitadas, pero con medidas cautelares para evitar que las empresas utilicen esta modalidad para reducir costes.

- Se modifican las condiciones de acceso a la jubilación anticipada y la cuantía a percibir.

- Se introducen modificaciones en la regulación de los contratos a tiempo parcial y de relevo.

- Se regulan las aportaciones económicas por despidos que afecten a trabajadores de 50 o más años en empresas con beneficios con el objetivo de desincentivar el despido de trabajadores por razón de su edad.

- Nuevo régimen de incompatibilidades de la pensión de jubilación o retiro de clases pasivas.

- El derecho a subsidio para mayores de 52 años se dificulta al computarse para su acceso no sólo las rentas del contribuyente sino la de todos los miembros de la unidad familiar.

- Se equipara para el colectivo de socios de cooperativas el régimen de acceso a la pensión de jubilación parcial previsto para los trabajadores por cuenta ajena.

- Las pensiones reconocidas en otro Estado se tendrán en cuenta a efectos de determinar la concurrencia o no de dependencia económica para el reconocimiento del complemento por mínimos de las personas con cónyuge a cargo.

> **183/2013 Dekretua, martxoaren 19koa**, zeinarekin honako programa garatzen baita: **enpresa txiki eta ertainak, banako enpresarioak eta profesional autonomoak finantzarioki laguntzeko programa** (EHAA, 13-3-22).

BESTEAK

> **PRE/421/2013 Agindua, martxoaren 15ekoa**, honen bidez azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretua **garatzen** da, hain zuzen ere, **zenbait legetarik Espainiako zuzenbidea ezagutzen dutela frogatzeko egin behar diren azterketei** dagokienez (BOE, 13-3-18).


Agindu honen xedea da gaitasun azterketaren kontu batzuk ezartzea- izan ere, Bulgaria eta Errumania Europako Erki-degoan sartu dira- eta abokatutzaren lanbidearen zenbait alderdi arautzea.

> **6/2013 Errege lege-dekretua, martxoaren 22koa**, **aurrezki eta inbertsio zenbait produkturen titularrak babes-teko eta finantza beste zenbait neurri hartzeko dena** (BOE, 13-3-23).

> **HAP/490/2013 Agindua, martxoaren 27koa**, honen bidez **aldatu egin da** abenduaren 13ko HAP/2662/2012 Agindua; horren bidez, **autolikidaziorako 696 idazki-eredua eta itzultzerako 695 idazki-eredua** onartu ziren; eredu horiek ahal jurisdikzionalaren inguruko tasenak dira, arlo zibilean, penalean, administrazioarekiko auzbidean eta lan auzbidean; baita ere, lekua mofua, epeak eta prozedurak ezarri ziren (BOE, 13-3-30).



EN LA ORILLA



Idazlea:
Rafael Chirbes

Anagrama, 2013
437 or.; 21,00€

“En la orilla” azken urteetan irakurri dudan liburitik gordinenetako bat da. Amesgaitza, iratzartzeko gogoia ematen duena. Eta okerrera da Rafael Chirbesek (Valentzia, 1949) ez duela asmatzen guk ez dakigun ezer. Zoritxarrez, istorioa hurbilekoa da. Oso hurbilekoa. Izatez, istorio horretan murgilduta gaude.

Chirbesek, azken eleberrian, krisi ekonomikoaren ondorioak aztertzen ditu. Aurrekoan espekulazioa eta diru erraza izan ziren. Horretaz Chirbesek aurreko eleberrian, “Crematorio” izenekoan, hitz egin zigun. Elkarri atxikitako etxeak, auto handia eta bigarren etxebizitza. Azkar egiten genuen aurrera, haizea aurpegian sentituz. Ez zegoela dirurik? Zure nomina eta zure emaztearena 40 urterako konprometitzen zenituen eta arazoa konponduta zegoen. Aldapa behera eta galgarik gabe. Bihurgunea iritsi izen arte. Higiezinen burbuila esan zitzaion. Eta talka hain zian zen handia, kalteak zenbaezinak dira. Eta horretaz hitz egiten da “En la orilla” eleberrian. Haizeak putz egitean bertan behera erortzen den karten gazteluaz. Erorketaz, hondamenaz, maular. Hilabete gutxi batzuetan bizitza bat hankaz gora nola jar daitekeen. Guztia gezurra zela, ez zegoela ezer, engainatu egin gintuztela.

Eleberriaren protagonista Esteban da, aroztegi baten jabea, jubilatzeko puntuazio dagoena. Higiezinen boomaren urteetan, Pedrós izeneko eraikitzaile eskrupulu gabe batek engainatu egin zuen higiezinen sustapen bat abalatzeko. Azkenean, patuak Estebani merezi zuen aukera eman


behar zion, bizitza osoa tailerrari eskainita egon eta gero. Jubilaziorako osagarri egokia, unerik onenean, aita fase terminalean dagoenean. Esteban familiaren tradizioari jarraitu dion seme bakarra izan da. Anaiak beste bide batzuk hartu zituzten, Etab era han geratu zen, apur bat inertziaz, apur bat aitak agintzen zuelako. Esteban liluratu egiten du sirenen kantak. Dena sinatzen du. Etxea, tailerra eta familiaren lur batzuk konprometitzen ditu. Aitaren sinadura faltsua egiten du, anaiak ez esan gabe. Azken finean, berak bakarrik zaintzen du agurea. Pedrós-en higiezinen sustapena hasi egiten da. Erraza diruri, eraikuntza jokoetan bezala da. Lehenengo indusketa, gero forjaketa, garabiak iristen dira... Baina apurka-apurka obrako jarduerak behera egiten du, langile gutxiago dago. Hasieran harritu egiten da azpikontrataren baten fakturak jasotzen dituenean. Akats bat dela pentsatzen du. Baina, pentsatzen jarrita, badira egun batzuk bazkidea ikusten ez duela. Tabernan entzun du Pedrós-ek hainbat zor ordaindu gabe utzi dituela. Ihes egin duela entzun du, inork ez daki non dagoen. Eta orduan konturatzen da. Iruzur egin diote eta lur jota dago. Tailerrera itzultzen da, langileei deitu eta kaleratu egiten ditu. Ispiluen joko batean bezala, biktima izatetik borroko izatera igaro da.

Chirbesek eleberri latza eta beharrezkoa idatzi du. Ez dugu urrun bilatu behar Estebanen bat aurkitzeko. Nola eta zergatik jakin gabe benetako amesgaitza bizitzen ari den jende langilea.

“Cuando lo hayas encontrado, anótalo”.

Charles Dickens

LA PUERTA ENTREABIERTA



Idazlea:
Fernanda Kubbs

Tusquets, 2013
221 or.; 17€

Fernanda Kubbs ez da existitzen. Goitizena da. Egitan, eleberri hau Cristina Fernández Cubasek idatzi du (Bartzelona, 1945). Kontakizun laburrak gustuko dituztenek nahitaez irakurri behar dute. Izatez, gure gomendioei jaramon egiten dienak gogoan izango du “Todos los cuentos” liburuaren erreseña. Kataluniako egilearen zenbait pieza laburren bilduma. Eta, egia esan, orduan ez dugu idazlearen albistek izan. Idazleak bera koraintsu egindako elkarrizketa batean dioenez, azkenaldian ez du bolada ona izan. Irakurtzeko eta idazteko gogorik gabe ibili da. Agian horregatik erabaki zuen looka aldatzea. Guztia pikutara bidali eta Fernanda Kubbs izena hartzea. Kontakizun laburrak ahaztu eta istorio zoro bati heltzea, modu arinago batean idatzi ahal izateko.

Azter dezagun argudioa. Eta, mesedez, ez belurdutu. Isa kazetari gaztea da eta nagusiek aldirik hurrengo ediziorako pitonisa bati buruzko erreportajea idazteko eskatu diote. Bero eta sargori egiten du. Eta hara doa kazetaria, koaderno eskuetan duela, guztiz eszeptiko. Gela ilun batean zain du Demirovska Handia. Kristalezko bola atera eta ohiko galderak egiten dizkio. Isa urduri dago, eta pazientzia galtzen ari da. Haserre dago, hau guztia pantomima hutsa da. Baina, bat-batean, eta pitonisarekin elkarrizketa tirabiratsua ostean, kazetaria nekatuta sentitzen da eta begiak ixten zaizkiola nabari-

tzen du. Zurrumbilo moduko batek inguratu egiten du. Ahotsak urrun entzuten dira eta “likido bigun batean igeri egiten dagoela sentitzen du, lumazko koltxoian, nire gorputzera eskularru baten moduan egokitzen den inguruan”. Isak begiak irekitzen dituenean, ezin du sinetsi ikusten duena. Begi handi batzuk begira ditu kanpotik. Demirovska Handiaren begiak dira, kristal baten zehar. Orduan Isak ulertu egiten du. Gauza ikaragarri bat gertatu da. Izaki txiki-txikia bihurtu da, eta pitonisaren kristalezko bolan harrapatuta dago.

Batek baino gehiagok esango dute hau ez dela berria. Eta egia da. Genero fantastikoaren barruan antzeko istorioak idatzi dituzte. Batzuk bikainak. Gogoan izan ditzagun Metamorfosia edo Benjamin Buttonen kasu bitxia... Baina ez, Kafkaren edo Scott Fitzgeralden lanekin lotura egon daitekeen arren, hemen guztia zoroagoa da. Arinagoa, dibertigarriagoa. Bakuna eta naïfa. Baina entretengarria eta ondo idatzia. Moldatu egin behar da. Istorioa onartu eta aurrera egin. Et ahori egitea oso erraza eta atsegina da. Izan ere, Kubbs-ek badaki zertan ari den. Eta jarraian idatzi du. Eta jarraian irakurtzen da. Horri gehitzen badugu gorabehera sorta bat, bigarren mailako pertsonaia kutunak eta harrapatu egiten duen bilbea..., ez dago gauza asko gehitzeko. Fernández Cubasek limurtu egin gaitu proposamen original eta dibertigarri honekin.



DÍAS DE PESCA EN PATAGONIA Carlos Sorín

Zuzendari argentinar hau asko gustatzen zait. Film guztietan zerbait originala eskaintzen duen zuzendari horietako bat da. Ez ditu maisulanak, baina bai ibilbide hutsik gabea.

Filmek antzeko kanonei erantzuten diete: badirudi ez dela ezer gertatzen, bizitza igaro egiten da, baina bat-batean, elkarrizketa batek, gidoiko kolpe batek zur eta lur uzten zaitu, oilo-ipurdiarekin.



Gaur egungo zuzendari gustukoenetako baten parean jartzen dut, hain zuzen ere, Robert Guedigianen parean. Bigarrena inoiz ez da Mar-seillatik atera eta istorio unibertsalak kontatzen dizkigu. Lehenengoa ere inoiz ez da Patagoniatik atera, Europako munduarekin zerikusi gutxi edo batere ez duten

erregistroak erabiltzen ditu, eta hala ere, ikusleak protagonistekin bat egiten du berehala. Agian film hau ez da iristen berak erdietsitako beste bi tontorretara: Historias Mínimas eta Bombón el perro. Hala ere, filma oso ondotik gora kokatzen da.

Esandakoa, ez du beste munduko ezer kontatzen. Protagonista zoritxarreko bizitza izan duen gizabanakoa da, etorkizun ekonomikoak eta lan arlokoak itxura txarra du, iragan alkoholikoa du, bananduta dago eta alaba bakarrarekin ia-ia ez du harremanik. Patagoniara joatea erabakitzen du,

marraoak arrantzatera (kontuan izan behar da bizitzan muxar triste bat ere ez duela harrapatu), eta horrela alaba bisitatzeko aitzakia izango du. Hala ere, nolabait purifikatzeko eta norabide okerra aldatzeko ideia du buruan.

Pelikula bikaina da egunerokotasunetik irteteko eta guk baino zorte makurragoa duten gizabanakoekin kontsolatzeko. Gehiegizko tristezia ukitua du, eta ez bakarrik hurbiltasun geografikoarengatik, gertaera gutxi dituen eta tristezia handikoa den beste film handi bat gogorarazten du -Whisky-.

Filma bizitzaren metafora eta hori ez da berrikuntza, argentinar batek egiten duela kontuan hartuta -joera handia dute psikologia gaiak jorratzeko-, baina lau irudirekin autolaguntzako edozein eskuliburu gainditzeko gai da. Protagonista marraoak arrantzatzea erabakitzeak iragartzen digu zer nolakoa den drama (erabaki hori hartzen du norbaitek esan diolako ona izango litzatekeela zaletasunen bat izatea.

Sinetsiko didazue esaten badut istorioak ez duela kontatzen aipatu duguna baino askoz gehiago, baina ez da gehiagorik behar. Istorio handiek argudio oso sinpleak izaten dituzte beti. Amaierak bat baino gehiago hotz utzi dezake, baina agian metraje hori -urria- egokia izango d aguretzat, hilean bost minutu eskas erabiltzen baititugu gure existentzia aztertzeko, itotzen gaituen joan-etorrian murgilduta. Lennonen hitzak erabiliz, bizitza beste plan batzuk egiten dituzun bitartean gertatzen dena da. Horri buruz hitz egiten da filmean. Egunen batean Patagoniara bagoaz, xede bakarra turismoa egitea izan dadila.

NADER Y SIMIN-UNA SEPARACIÓN Asghar Farhadi, 2011

Nire ingurukoek barre egiten dute, Irango film bat baino gehiago ikusi dudala dakitelako. Ziurrenik ez dira bost baino gehiago izan, eta horietako lau Kiarostamirenak izan dira, zuzendari ezaguna bera. Azkenaldian burua apur bat joan zaio, gereziak eta jeepak alde batera utzi dituenean (*Copia certificada* -ez dakit bigarrenez ikusiko nukeen-). Era berean, ez da arraroa zinema egitea erraza ez den herrialdeetan mota honetako bitxiak sortzea. Ondo mezeitako iazko Oscar sariduna atzerriko filmik onenari.




Banantze baten azpitu-lu engainagarri bat izan arren, istorioan ez da kontatzen dibortzio prozesu guztiekin batera sortu ohi den metastasia, emakume batek senarrarengandik dibortziatzeko erabakia hartu ostean izaten diren gertaeren batura baino. Oinarri-oinarriari, erabaki hori senarrak Iranetik alde egiteari ezetz esatearen ondorioa da, emazteak hala nahi baitu, alabarentzat etorkizun hobea lortu ahal izateko.


Hala ere, arazo horretatik kanpoko beste gertaera batek -senarrari eraiketa leporatuko diote- dena ilundu du eta banantzearen arazoa bigarren mailan geratuko da -amaiera antologikoan konponduko da benetan-. Planoak kreditu tituluen aldi berean agertuko dira.

Argudio horrekin, sentikortasun handiko errealizadoreak emozioak bilatuko ditu. Ikusten den guztia ez da urrezkoa eta badaude manikeismoak (hasteko, espero ez bezala, Nader ez da Simin aiatolahun herrialdean guztiaren gainetik lotu nahi duen matxista izukaitza). Guztia dramaren mesedetan: senarraren arrazoiak, indartsuak, emaztearenak, indartsuak horiek ere, adingabeko alabak biak lotzeko egiten dituen ahalgintza, herrialdeko errealitate politiko eta sozialaz ohartu gabe.

Baina pasarte judiziala ez balego (ez dugu horren xehetasunik emango) istorioa beste bat izango litzateke, ondo kontatua, baina beste bat. Auzitegi-tako intzidente horri esker lortuko du filmak paregabeko maisutasuna, eta film klasiko bihurtzen du (hereneguneko izan arren). Alde batera utziko ditugu bilbeak itogarriago bihurtzen dituen kokalekuen urritasuna, sharia nagusi duten epaiketa bitxiak abokatuen laguntzarik gabe, baina nolabaiteko justizia sena izanda; horren ordez, pisu handiko dilema moralak aztertuko ditugu, eta horietako asko oso ezagunak izango dira jarduneko abokatuontzat. Tentazio klasikoa dago batzuetan gezurra interes erkideari mesede handiagoa egiten diola egiak baino. Edo beste tentazio klasikoaren arabera, epaiketaz kanpoko akordia nahitaz lortu behar da, inplikatu guztiei gezur erdiak baino kalte gehiago egin ahal dien egia argitara atera ez dadin. Eta gustatzen den moduan, guztia inolako moralizaziorik gabe kontatuta, imintziorik gabe, gertaera aseptikoekin eta dosika ematen diren argudio-birekin. Film handia.



NINE BELOW ZERO – Live at the Marquee



Cd + dvd
(A&M)
21 abesti

New-wave mugimenduaren klasikoa. Meritu gehigarria da *rhythm & blues* revivalaren diskoa dela, urte haietako zurrumbilo melodikoaren erdian sortua. Nine Below Zeroren debuta ukiezina izan da 1980ko hamarkadako lehen edizioetik, eta sona handiko kokapenari eutsi dio. Erreferentzia berezi batean oraintsu berreskuratu da. Jatorrizko zerrendan uztaileko bi gau ospetsu haietan Marquee interpretatutako zazpi tema ezezagun gehitzeaz gain, dvd bat ere gehitu da –apala, badirudi vhs-n egindako grabazio batetik aterata dela, ez da arretaz masterizatu ez digitalizatu, baina funtzionatzen du–. DVD horretan, kontzertu horietan gertatutakoa laburtzen da, ordu erdian.

Garai hartan mod mugimenduak eta pub-rockaren zaleek jarraitu zituzten. Logikoa izan zen hori, Dennis Greavesen laukoteak dotoretasuna eta hainbat talderen (hala nola Dr. Feelgood eta Eddie & The Hot Rods) intentsitatea bateratzea lortu baitzuen. Talde horiek musika beltzaren, soularen eta bate zere r&b musikaren bitxiz aharrak berreskuratzen aritzen ziren, eta berriz

ekoizten zituzten –haien temekin nahasita, ukituekin eta joera berarekin–, haien erritmo eredu eutsiekin, gitarra eta harmonika oinarri hartuta. Bi tresna horiek tregoarik gabe eta bahituak egiteko asmorik gabe astintzen zituzten.

Agian badaezpadako interesa duen taldea izango da, eta oso ondo gogoratuko dituzte urtean eskaintzen dituzten ehunaka kontzertuetako batean egon zirenek. Nik zalantza egiten dut. *Live at the Marquee* erreferentziako diskoa izan da beti, gurtzekoa, eta ondo funtzionatu du eta ondo defendatu du lan hori bilduman zuen edonork. Gaur egun lan horretara itzultzeak de *luxe* lan honi esker eragozpen bat izan dezake, hain zuzen ere, “Homework” eta “Got my Mojo Working” lanek, jatorrizko r&b subkontziente kolektiboan ezarrita dagoenean –edo egon beharko lukeenean– bere garaian zuen erakargarritasuna galdu dutela ohartzea. Baina hori gaintitu ondoren, banda superlatibo bat ateratzen da, agertoki txikikoa, intentsitatea izerdirik gabe imajinatzen ez duten horietakoa –nola aldatu diren gauzak–.

COLORAMA – Good Music



Cd
(A&M)
10 abesti

Duela urte batzuk, Box albuma argitaratzean, hitz egin genuen Coloramari eta bere factotumari, Carwyn Ellisi, buruz. Baina kontua da badaudela arrazoi nahiko Cardiffekoari espazio murriztu eta borrokatu hau berriro ere eskaintzeko. Lehenengo eta behin, esan behar da Elkargora bisita egin zuela duela gutxi eta guztiok liluratuta geratu ginela berarekin –asko izan ginen, ahotik ahoroaren indarraren erakusgarri–; kontzertu delikatua eskaini zuen, eta abestiak formatu murriztura eramaten jakin zuen, ia-ia formatu akustikora. Abestiei apaindura asko kendu zizkien eta funtsezkoa murriztu zituen, bidaia horretan ia-ia ezer galdu gabe. Bigarren, Edwyn Collinsi lagundu dio Estatutik oraintsu egindako biran, eta kontzertu horiek –ziurrenik norbere burua gaintitzeko istorioari esker, eta ez horrenbeste musika bertuteengatik, behar den bestekoak izan arren– oihartzun handia izan zuten komunikabideetan; hori dela eta, gure heroi txikia igandeko eranskinen batean agertu da.

Eta, amaitzeko, Carwynen eta Coloramaren azken diskoak, honek, fintasun aparta du, lan bikaina. Bitxigintzako pop pieza zoragarriak konposatzeko duen gaitasuna berrestez gain, horiek konposatzen ere beldurrik gabe ausartzen dela erakusten du. Estetika, musika-erreferenteak eta aurreko diskografia kontuan hartuta, errazena Carwyn *revival* eszenaren batean kokatzea zen, eta hala ere, *Good Music* disko oso garaikidea da. Bertako garaiz kanpoko pop guztia indie-poparen gaur egungo eskaintzaren aurre-aurretik kokatzen da.

Colorama ametsa da poparen gorabeherak egunerok jarraitzen ditugunentzat. Sinplea saihestuz –berarentzat errazena izango zen britainiar tradizio aberatsean gelditzea, eta horrela ere nabarmendu egingo zen–, soinu-paleta ireki egiten du, ziur baitago duela urte batzuk egindakoari jarraipen probetxugarria eman ahal zaiola. Paga da, eta ezin diogu muzin egin.



MARIA STUARDA

61. denboraldiko azkenaurreko izenburu moduan, eta denboraldi guztiak kontuan hartuta bigarren aldiz, OLBEk opera serio moduan katalogatutako lan hau aurkeztu digu, Gaetano Donizetti maisu italiar oparoak ekoiztutako 46. lana. Opera honek ez zuen nolako arrakastarik lortu 1835eko abenduaren 30ean Milango Teatro alla Scalan estreinatuta zutenean. Sorrera nahiko istilutsua izan zuen; lehenengo, estreinatuta baino lehen, entseguetan, bi erreginak antzeztan zituzten abeslarien artean tirabirak egon ziren. Gidoian agertzen ziren irainetatik arlo pertsonalera igaroz iren, eta bata besteari eraso egin zion; bigarren, zentsurak muturra sartu zuen eta libretoan aldaketak egitea eskatu zuen. Hori dela eta, estreinaldian ez zuen arrakastarik lortu, eta opera debekatu egin zen seigarren antzezpeneren ostean. Hori dela eta, osorik berrikusi behar izan zuten. Donizetti maisua hil egin berriro ekoiztuta ikusi aurretik.

Hiru ekitaldiko opera tragikoa da, Giuseppe Bardariren libretoarekin, Friedrich Schiller-en Maria Estuardo lana oinarri hartuta. Lan horrek "Tudor trilogia" osatzen du, Anna Bolena eta Roberto Devereux lanekin batera (opera horiek Donizettik konposatuz ituen, eta Ingalaterrako Elisabet I.a erreginaren ingurukoak dira). Opera Calisto Bassik berrikusi zuen gero. Operan Ingalaterrako eta Eskoziako erreginen arteko bilkura kontatzen zaigu, hain zuzen ere, Elisabet Tudorren eta Maria Estuardoren artekoa, erregina ingelesak azken hori harrapatu ondoren. Bilkura hori inoiz ez zen egin. Espetxealdi luze baten ostean, gertaerak bata bestearen atzetik datoz, Elisabetek Mariaren heriotza-epaia sinatu dezan. Drama honetan, bi erreginak, aurkari politikoak izateaz gain, maitasunaren esparruan ere lehiakideak dira, Leicestergo dukeaz maiteminduta baitaude biak.

Antzezpenerari dagokionez, Stefano Poda zuzendariaren eszenaratzea Grazeko Operaren ekoizpenerako, oso dotorea izan zen, dekoratu arranditsuak, eta argiztapen ona. Horri esker, ikusleak lanaren argudioa jarraitu ahal



izan zuen eta bakarlariren agertokiko lana erraztu egin zen.

Musikari dagokionez, José Miguel Pérez Sierra maisu espainiarraren batutak oso ondo gidatu zuen Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, eta partiturari Donizettiren ukitua ematea lortu zuen. Musika indar handiz defendatu zuen arren, interpretazioak bel cantoaren gardentasuna bilatu zuen behiago burrunba baino, eta uneoro lortu zuen melodiak bakar-lariak babestea.

OLBEk kontratatutako bakarlariei dagokienez, diben benetako lehia ikusi zen.

"María Stuarda" Eskoziako erregina Ipar Amerikako Sonda Radvanovsky sopranoak interpretatu zuen. Harrigarri aizan zen, ezin da hobeto abestu. Ahotsak loria-egoeran dagoen sopranoa erakutsi zuen, eta notak argitasun eta garbitasun indartsuarekin emateko gai izan zen. Diba estatubatuarrek liskarraren eszenan distira egiteko sen berezia duela erakutsi izuen eta luzitzeko aukerei ez zien ihes egiten utzi. Ahots-balentriak egin zituen, hala nola abesbatzaren gaineko nota garbia, arnasa modu miresgarrian kontrolatuta eutsi zuena.

Gaueko beste diba eta agertokiko partenera, Ingalaterrako "Elisabet I.a" erregina, OLBEk debuta egiten zuen Verónica Simeoni Erromako mezzosopranoak interpretatu zuen. Sorpresa handia izan zen. Distira egin zuen aktore moduan eta abeslari moduan interpretazio osoan. Mezzo ahots oso liriko eta liluratzailerak erakutsi zuen, segurtasun handikoa, ahoskera perfektuan eta tinbre argi eta indartsuan oinarritua. Horri esker, rola zorrotasun osoz interpretatu zuen, eta uneoro interpretazio talentu handia erakutsi zuen.





Bi erreginek haientzat nahi zuten pertsonaia, "Conde di Leicester", OLBEn debuta egin zuen Francesco Demuro italiar tenorrek interpretatu zuen. Oso maila handia erakutsi zuten aurreko bien maila erakutsi ez zuen arren, eginkizuna ondo bete zuen, eta partiturak aurrera egin ahal hazi egin zen. Tenor arina dela erakutsi zuen, kantu-edertasun handikoa eta tinbre indartsukoa. Eszenak huts egin zion, eta atal horretan bere eginkizuna apur bat hotza izan zen lanaren pasarte batzuetan.

Rolak oso ondo interpretatu zituzten gaueko azken debuta egin zuena, Mirco Palazzi italiar baxua "Talbot" interpretatuz, eta bartzelonarrak, Alex Sanmartí baritonoa "Cecil" interpretatuz, eta Anna Tobella mezzosopranoa "Anna Keneddy" interpretatuz.

Bilboko Operaren Abesbatza eszena-zuzendariak posizio guztietan jarri zuen abesten. Emanaldi bikaina eskaini zuen. Ahots guztien distira eta indarra azpimarratu behar dira. Parte-hartze guztietan oso maila handia erakutsi zuten.

Laburbilduz, diben lehia handia antzokietan maiztasun handiagoarekin antzeztu beharko litzatekeen opera honetan, Bergamoko konpositore handi honen maisulanetako bat denez gero.

"María Stuarda"

Aktoreen zerrenda: Sondra Radvanovsky (s); Verónica Simeoni (mzz); Francesco Demuro (t); Mirco Palazzi (bx); Alex Sanmartí (bar); Anna Tobella (mzz); Bilboko Operaren Abesbatza; Nafarroako Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Stefano Poda; Musika-zuzendaritza: José M. Pérez Sierra; Lekua, Euskalduna Jauregia.



Opera

Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de El Boletín pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**



**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M^º del Prado Guzmán López
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva
Mutualista desde 2008

Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

Sin ánimo de lucro	Todos los beneficios para el mutualista¹
Gestión independiente de las inversiones	Persiguiendo siempre la máxima seguridad
Rentabilidad para tus ahorros	4,5% en 2012 + complemento a final de año²
Tus seguros de vida a menor coste	Gracias a nuestra especialización
Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros	Con nuestro Club Privilegia
Disfruta de productos exclusivos para los abogados	De previsión complementaria y seguros personales
Gestión profesional	Compatible con la autogestión por los abogados
Costes reducidos	Estructura simple y distribución directa
Tecnología	Web interactiva para cualquier trámite o consulta
Transparencia	Información trimestral, y diaria en la web

Para más información entra en
www.mutualidadabogacia.com

escribe un e-mail a
buzon@mutualidadabogacia.com

o llama al Servicio de Atención al Mutualista
902 25 50 50

1. Los resultados de la Mutualidad revierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.